

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 28/2018 Foru Dekretua, ekainaren 19koa. Onespena ematea Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionalari buruzko otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuaren aldaketari

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zuen, eta Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 19ko 53/2016 Foru Dekretuak, Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 45/2017 Foru Dekretuak eta Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 19ko 50/2017 Foru Dekretuak aldatu zuten.

Foru dekretu horren 2. artikulua ezartzen ditu sail hori dekretuaren eranskinetako organigramaren arabera egituratzeko oinarri hartzen dituen unitate organikoak; haren a) idatz zatian Nekazaritza Garapenerako Zerbitzua unitate organiko gisa ezartzen da, eta haren mende daude Nekazaritza Sustapenaren Atala eta Landa Azpiegiturako eta Ureztatzaileen Bulegoko Atala.

Hura onetsi zenetik 2 urte baino gehiago igaro direnez, Nekazaritza Sailak aldatzea proposatzen du Landa Azpiegiturako eta Ureztatzaileen Bulegoko Atalaren izena eta "Nekazaritza Egituraren eta Landa Azpiegituraren Atala" izena jarri, bai eta egitekoak beste era batera banatzea ere Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren eta atal horren artean, gabezia batzuk antzeman ondoren, zeinak zuzendu nahi baitira zerbitzu osatuagoa emateko Arabako Lurralde Historikoko nekazari eta abeltzainei, eta operatibotasun eta eraginkortasun handiagoa lortzeko, banatu egingo direlako nekazaritza egiturekin loturiko gaiak eta ureztaketarekin loturikoak.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuaren aldaketa hauei. Foru dekretu horren bidez, Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen.

"2. artikulua –Egitura" izenekoaren 1.a) idatz zatia aldatzea, eta honela idatzita geratzen da:

Nekazaritza Zuzendaritza; honi atxikita dago:

Nekazaritza Garapenerako Zerbitzua, zeinak menpean honako hauek dituen:

- Nekazaritza Sustapenaren Atala.
- Nekazaritza Egituraren eta Landa Azpiegituraren Atala.

1.2 Aldatzea 9. artikulua Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuari esleitzen zaizkion eginkizunei dagokienez, eta artikulua horretako 2. puntua Nekazaritza Egituraren eta Landa Azpiegituraren Atalari esleitzen zaizkion eginkizunei dagokienez; honela idatzita geratzen dira:

9. artikulua. Nekazaritza Garapenerako Zerbitzua

Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuari eginkizun hauek betetzea dagokio:

a) Landa Garapenerako Planaren barruan dauden eta Europako funtsekin kofinantzatzen diren laguntzak nahiz nekazaritza arloan sailaren eskumena diren estatuaren laguntzak izapidetu, kudeatu eta kontrolatzea.

b) Landa azpiegitura hobetzeko planak, proiektuak eta laguntza programak gertatzea, ureztaketa lur bihurtzeko proiektuetara zuzendutakoak edo horiekin loturikoak barne hartuta, diruz lagundutako obren kontrola eta jarraipena gainbegiratzea eta, hala dagokionean, obren zuzendaritza egitea.

c) Ureztaketa lur bihurtzearekin zerikusia duten obrak proiektatu, zuzendu eta burutzea.

d) Ureztatzaileen elkarteei laguntza teknikoa eta prestakuntza ematea haien kudeaketa hobetzeko.

e) Uraren erabilera optimizatzea eta gaur egungo azpiegiturak gaurkotzea, ureztaketaren eraginkortasun handiagoa lortzeko, energia kontsumoa gutxituz eta haren ingurumen eragina ahalik eta gehien murriztuz.

f) Ureztaketaren kudeaketan inplikaturako erakunde guztien arteko lankidetzak bultzatzea.

g) Zerbitzuak kudeatutako laguntzak ikuskatu eta kontrolatzea.

h) Europar Batasunaren nekazaritzako politika barruan ezarritako arauen arabera eskatutako laguntzak ikuskatzen laguntzea (NPB, oinarritzako ordainketa, baldintzak...).

i) Lurralde eta sektore planeamenduekin zerikusia duten txostenak aztertu eta egitea, saileko eta eraginpeko beste sailetako zerbitzuen lankidetzan.

j) Saileko gainerako zerbitzuekin elkarlanean jardutea baliabide materialak eta giza baliabideak gehiago optimizatzeko.

k) Nekazaritza Zuzendaritzak haren gain jartzen duen beste edozein eginkizun.

9.2. Nekazaritza Egituraren eta Landa Azpiegituraren Atala.

Nekazaritza Egituraren eta Landa Azpiegituraren Atalari eginkizun hauek betetzea dagokio:

a) Nekazaritza ustiatzietako egiturak hobetu eta gaurkotzeko eta nekazaritza sektorea gaztetzeko laguntza egitasmoak eta programak gertatzea, baita ere horiek arautzeko eta beteazteko txostenak eta proposamenak ematea.

b) Familien edo sektoreko elkarte eta kooperatiben nekazaritza ustiatzietatik sustatzeko eta arrazionalizatzeko programa garatzeko helburuaz azterlanak, txostenak, eta laguntza eta jarduketarako proposamenak gertatzea, ahal diren jardun eremu guztietan.

c) Nekazaritza ustiatzietatik laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea haien hobekuntza eta gaurkotzeari begira, baita ere nekazaritza eta abeltzaintza egituretarako laguntza planen ondoriozko inbertsioen eta gainerako jarduketaren kontrola eta jarraipena egitea, helburu horiekin finkatutako araudira egokitzen diren dirulaguntzen ordainketa proposatuz.

d) Nekazaritzako egituretarako laguntza programak (modalitate desberdinetakoak) arautu eta burutzeko txostenak eta proposamenak egitea, Europako araudiaren arabera.

e) Bideen titularrak diren entitateekin erabilerako ordenantza partikularrak koordinatzea.

f) Landa bideak zaintzea eta haien erabilera kontrolatzea, ezarritako arauarekin bat etorriz, eta Bideen Erregistroan jasotako landa bideen erabilera berezia edo pribatua baimentzeko edo emateko espedienteak izapidetzea.

g) Teknologia berriak sustatzeko planak proposatzea, nekazaritza bideak hobetzeko.

h) Landa Azpiegitura Planak burutzean gerta daitekeen edozein gorabeherari buruzko irizpenak ematea.

i) Sailak diruz lagundutako eta zuzendaritzak egiteko eskatzen dizkion landa egituretarako obrak kontrolatzea eta haien jarraipena egitea, eta hala behar izanez gero, obra proiektuak egin eta haiek zuzentzea.

j) Laguntza tekniko eta aholkularitza ematea toki erakundeei, nekazaritza bideen arloko jarduera programei buruz.

k) Nekazaritza bideen sarearen mantentze lanekin lotutako azterlanak, proiektuak, proposamenak eta gainerakoak egitea, abere bideenak barne.

l) Azterlanak, proiektuak, irizpenak, proposamenak eta Nekazaritza Eraberritu eta Garatzeko Legeak lurzatiei baterakuntzako zonetako teknikarien esku jartzen dituen gainerako ekintza teknikoak gertatzea, baita ere horiek berekin dakartzaten lanak zuzendu eta gauzatzea.

m) Lurzatiei baterakuntzako toki batzordeetan, zonako arduraduna den teknikariari esleitutako kide postuan jardutea.

n) Lurzatiei baterakuntzarekin eta ureztatze lur bihurtzearekin loturiko guztian jarduketan agiritegiak mantentzea, baita Arabako Lurralde Historikoko Landa Bideen Erregistroa ere, erregistro horren kontrola eta eguneratzea gauzatzuz.

o) Finken zuinketarekin loturiko jarduketak gauzatzeko, horiek egitea tasa edo prezio publikoaren pean baldin badago.

p) Sailak kudeatutako laguntza desberdinen barruan kokatzen diren kontrol eta ikuskatze guztiak egiten laguntzea.

q) Zerbitzuaren buruak haren gain jartzen duen beste edozein eginkizun.

Bigarrena. Dekretuaren gainerakoa eta haren aldaketak bere horretan uztea.

Hirugarrena. Dekretu honek, onetsi eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Gasteiz, 2018ko ekainaren 19a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE